

# EUSKAL HERRIKO ALEGIA, IPUIN ETA KONDAIREN BILDUMA

BARANDIARAN ETA IRIZAR-TAR LUIS



JOSEMIEL BARANDIARAN-EN HITZAURREA

TXERTO A ARGITALDARIA

## HITZAURREA

Herri kontu eta kontaketak giza gogoaren berezko exigentziei erantzun bat dira eta askotan haien egitura, ipuin harrigarrietan baitipat, exigentzi beroien indarrez kondizionatua ageri da. Horregatik kontaketa edo istorio horien egiturazko azterketa batek argi azal diezaguke hondo edo barne ber bera guztietan, elementu iraunkorrak dituen sistema bat: pertsonaiak eta egintzak, istilu eta jokaerak, eta eginkizunen eraketa berdina. Eta hori dena ez zenbait ipuinetan bakarrik, herri literaturako ipuin gehienetan baizik.

Halabaina, gai iraunkor horiekin batean ageri dira ere herri kontu guzti horietan elementu aldakorrak: guri gogora ekartzen eta adierazten digutenak bai leku bakoitzeko bizierak, bai herrialde eta aldi bakoitzeko lan eta ohitura ezberdinak, bai lurraldeen eta giza munduaren irudiak —mendiak, hartzuloak, iturriak, hibaiak eta itsasoak direla, bideak, zubiak, etxeak, gazteluak, elizak, ermitak eta beste monumentuak direla—, baita ere santu, herri bakoitzeko gizon ospetsu, animalia, mamutzar, inguma, ireltxu eta abarren oroigarriak. Elementu eta gai horiek

direla eta, herrietako kondairen eta kontu zaharren bidez ondo bereizi eta nabarmendu daiteke gizatalde eta kultura bakoitza.

Euskal ahozko literatura, beraz, gure herriaren bereizgarri da, eta hori ez da harritzekoa, herri hau haren lur eta sortzaile izanik.

Liburu honetan bildutako ipuin eta herri kondairak, liburu egileak halako trebetasun eta maitasun haundiz aukeratu, egokitu eta sailkatu dituenak, era askotako bilduma osatzen dute, eta hori bera euskal herriaren askotariko pentsakera eta kulturaren adierazgarri da.

Hemen ematen diren dato askok, nahiz gaurko euskaldunen bizitzan eta ikuspegiaren bazter uneak besterik ez ukitu, aintzinako histori-aldiak gogora ekartzen dizkigute, gure arbasoen mito eta kultuak, oinarrizko gai askori eta bestelako elementuei lotuak. Horrela, *Aralarko Herensugeak*, *Estrakinburukoak*, *Kixmiren* jaiotzaren adierazpenak *Aralarko* jentilen dantzarekin, eta *Murumendiko Dameak*, beste zenbait pertsonaia eta gertakarien artean, askotariko sinesteak eta tradizio haundiko ohitura eta egintzak oroitarazten dizkigute, adibidez, animen itzalak edo *gerixetiek* sinestea, *Alotzako* jentilen erritua leku hartako monolitoaren aurrean ilargibeteko gauetan dantza eginez bakoitzak bere itzalorekin, harri eta diru opariak hartzulo eta leizeetako ireltxuei, eta jentilen garaiko beste ohitura batzuk, gure egunetaraino iritxi direnak, nahiz eta *Aralarko aztiak*, Kristoren jaiotzaren ezaugarri zen laino argi bat ikustean, esan jentilen bukaera etorri dela («gureak egin dik»).

Gero kristautasunak euskaldunen bizitzaren eta ikuspegiaren erdilekua betetzean, batzutan beraren ondoan eta etsai aurpegiz eta bestetan beraren babesean, jatorri zaharreko elementu askok iraun zuten kristau gertakari eta gaiekin lotuak. Hori egiztatzea erraza da nahiz tradiziozko ohitura askotan eta nahiz herri ipuin eta kondaire-

tan. Berdier-ek esana hemen errepika genezake: «Kontu zaharrak lur azalean daude, aski da ustegabez makiltxo kolpe bat ematea, nahi diren gauzak harkaitzetik aterarazteko».<sup>1</sup>

Hori gertagarri izan da gure herrian gaur arte. Hori frogatzeko hemen dituzu liburu honetan datozen ipuin eta leiendak. Euskaldunen tradiziozko kulturaren sail edo alde jakingarri bat ezagutzeko gogo bizia duten irakurleei oso probetxuzko izango zaiela uste dugu liburu honen irakurketa.

Ataun, 1981, urtarrilak 28.

BARANDIARAN-dar JOSE MIGUEL

---

<sup>1</sup> Joseph Bédier: *Les Fabliaux*, pag. 91. Paris 1925.